



BAZKIDE GARRANTZITSUAK

Gure **kaxa adimenduna** merkaturatzeko eta ikasleengana iristeko, bazkide estrategikoen sarea ezinbestekoa da. Hauek laguntzen digute ekoizpena bermatzen, banaketa errazten eta produktua modu eraginkorrean sustatzen.

Hezkuntza-inguruneko aliantzak

- **Ikastetxeekin hitzarmenak:** Kubixa tutoretza edo orientazio orduetan aurkezteko, eta ikasleen artean ezagutzera emateko ikastetxeekin itzaldiak egingo ditugu.
- **Ikasle-elkarteekin lankidetzak:** Ekitaldiak, informazio-saioak edo promozio bereziak antolatzeke.
- **Guraso Elkarrekin (AFA) elkarlana:** Gurasoei produktuaren onurak azaltzeko eta seme-alabentzat baliagarria dela komunikatzeko elkarlanean arituko gara, izan ere haiek izango dira gure produktua erosiko diguten pertsona garrantzitsuenak.

Hornitzaile bereziak

- **Kaxa fisikoaren fabrikatzaileak:** Kalitatezko produktu bat ekoizteko eta kantitate egokia izateko
- **Osagai elektronikoaren hornitzaileak:** Barruko mekanismo fidagarriak eta denbora-kontrol sistema bermatzeko.
- **Logistika eta garraio enpresak:** Kaxak garaiz eta baldintza egokietan entregatzeko.

Merkaturatze eta salmenta bazkideak

- **Material didaktikoko dendak eta liburu-dendak:** Produktua denda fisikoetan eskuragarri izaten saiatuko gara, jendeak online erosteaz aparte dendan ere erosteko aukera izateko.
- **Online denda eta plataformak:** Horrek erosketa prozesua erraztu eta bezero gehiagorengana iristeko.



- **Promozioetarako kolaboratzaileak (ikastetxeak, udalak, elkarteak...):** Aurkezpenak, tailerrak edo informazio-kanpainak antolatzeko eta produktuaren ikusgarritasuna handitzeko.

Laburpena

Bazkide hauek guztiak funtsezkoak dira: **ekoizpena bermatzeko, produktuen kalitatea ziurtatzeko eta ikasle gehiagorengana iristeko**. Haien laguntzari esker, gure kaxa adimenduna arrakastaz merkaturatu eta zabaltzeko aukera dugu.